

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
0 positibo berri	1 hildako	9 PCR positibo berri	0 hildako
2.314 positibo guztira*	1.541 hildako EAEn	5.287 PCR positibo guztira	61 ospitalizatuta
*Hernanin 60 Astigarragan 20		Sendatuak: 16.499 EAEn; 5.870 Naf.	

## Liburutegia irekita gaurtik, hitzordua hartuta

Martxan jarriko da berriro, gaur bertan, liburuak liburutegitik maileguan hartzeko zerbitzua. Aurretik hitzordua hartu behar da telefonoz, posta elektronikoz edo webgunearen bidez, eta liburuak jasotzeko poltsa eraman beharko da.

### HERNANI UDAL LIBURUTEGIA

Gaurtik aurrera aukera dago berriro, Udal Liburutegian liburuak maileguan hartzeko. Koronabirusaren eraginez ezarritako alarma-egoera medio, hala ere, neurri bereziak hartu beharko dira kontuan.

### Hitzordua eskatuta

Liburutegia gaur bertan irekiko bada ere, materiala maileguan hartzeko hitzordua eskatu behar da, bertara joan aurretik. Horretarako, telefonoz deitu daiteke 943 55 29 66 zenbakira, whatsapp bat bidali daiteke 688 635 462 zenbakira, emaila idatzi daiteke [liburutegi@hernani.eus](mailto:liburutegi@hernani.eus).

eus helbide elektronikora, edo <http://liburutegia.hernani.eus> webgunea erabili daiteke.

Hitzordua hartzeaz gain, liburuak jasotzeko norberak bere poltsa eramatea ere eskatu dute, eta liburutegian banan-banan sartzeko, adostutako orduan. Hala ere, 14 urtetik beherakoak eta laguntza behar dutenak laguntzaile batekin sartu ahal izango dira.

Osasun eta higiene neurri gehiago hartuko ditrela ere jakinarazi dute, bestalde. Esaterako, maileguan hartutakoa itzultzeko, Biteriko sarreraren dauden kutxak erabili beharko dira. Horrela, hor utzitako materiala 15 eguneko berrogeialdian edukiko dute.



Aurretik hitzordua hartuta eta banan-banan sartu beharko da liburutegian.

**Gomendioak, aukeran**  
Zer eskatu ez dakitenei, gogorazite nobedade eta katalogoaren berri webgunean ikusi

dezaketela. Era berean, zer gusatzaten zaigun edo zeren bila ari garen zehaztuta, gomendioak ere egingo dituzte, eskatuz gero. **K**

## Atletismo pista berrituko da

HERNANI HERNANI ERABAKI

Gaur bertan hasiko dira atletismo pista berritzeko lanak, Hernani Erabaki prozesu parte-hartzailean erabaki zen bezala. Pistako kautxoak lurra berritu eta inguruko belardia txukunduko dira. Lanek 3-4 aste iraungo dutela aurreikusten da, eta bitarte horretan, pista itxita egongo da.

## Errealitate birtuala, biharko saioan

ASTIGARRAGA-HERNANI KZ GUNEA

Ekainerako ere zuzeneko online hitzaldiak antolatu ditu KZ Guneak YouTube bidez, doan. Bihar, 11:00etatik 12:00etara, errealitate birtuala eta areagotua ezagutzeko aukera izango da, euskeraz egingo den saioan.

## Ateak zabalik, Txantxangorri

HERNANI TXANTXANGORRI

Gaurtik aurrera irekita egongo da Txantxangorri elkarte, bazkideentzat. Dena den, aforoak mugak izango ditu, eta araudi berria erabiliko da.

## Kontrola berriro, aparkalekuan

HERNANI TRAFIKOA

Udaltzaingoa gaur hasiko da berriro, aparkaleku arautuak kontrolatzen.



**Zorionak Ibai!**  
Asko maite zaitugu!  
Etxekoak.  
**8 urte**



**Zorionak Leire, Bombon!**

## Indakeria matxistaren aurkako herria, seinalizatuta

Udalak seinaleak jarri ditu herriko hiru sarreretan, indakeria matxistaren aurkako mezuarekin.

### ASTIGARRAGA BERDINTASUNA

Seinaleak jarri ditu Udalak herriko hiru sarreretan, «indakeria matxista gaitzesten» duela eta «horrekin amaitzeko presuntasuna» duela azaltzeko.

### Gizarte oso baten isla

Seinaleen bidez, Udalak jakinarazi nahi izan du «indakeria matxista badela, horren aurka gaudela eta lanean jarraitzen dugula».

Hain zuzen, indakeria matxistarekin bukatzeko lanaren parte da seinaleak jarri izana. «Indakeria sexista da emakume izate hutsagatik jasaten dena eta helburu eta ondorioa emakumeen gaineko kontrola eta nagusitasu-



Indakeria matxistaren aurkako seinaleak jarri ditu Udalak herriko hiru sarreretan.

na betiketzea duena. Arazoaren arrazoia gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun estruktural eta sinbolikoetan datza. Hori horrela izanik, ezin da azaldu pertsonen arteko indakeria bezala soilik, gizarte oso baten isla bezala baizik». Era berean, «indakeria

matxistari aurre egiteko ezinbestekoa da aurkako jarrera soziala eta instituzionala irmoak izatea, eta instituzioek biktimari lagundu eta babesa ematea», zehaztu du.

### Indakeria gehiago

Udalak dio «indakeria matxis-

ta adierak indakeria gehiago ere hartzen» dituela bere baitan, «genero rol sozial bikoei eta horiei lotutako sexualitateari egokitzen ez zaizkien pertsonen jasaten dituzten beste indakeria batzuk: lesbofobia, homofobia eta transfobia». Guztiaren aurka agertu da. **K**

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

**KIMERA**  
Fisioterapia - Osteopatia

[www.kimerafisioterapia.com](http://www.kimerafisioterapia.com)

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko


**EGURALDIA GAUR** Goizean lainoak izango dira, eta hego-haizea. Euri pixka bat egin dezake. Arratsaldean, iparrera aldatuko du eta zaparradak botako ditu han-hemenka. **Min.16° / Max.26°**

**BIHAR** Lainoak eta urdinguneak tartekatuko dira goizean, eta giroa lasaia izango da. Arratsaldean, gehiago lainotu eta ekaizak jo dezake. **Min.16° / Max.24°**

**DOBERA EUSKARA ELKARTEA**  
**LAGUNTZAILEK**  
Hernaniko Udala  
Astigarragako Udala  
Euzko Legearen Arloko Udala  
Gozietako Udala  
ARANOKO UDALA

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK**  
Euzko Legearen Arloko Udala  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Euzko Legearen Arloko Udala  
ARANOKO UDALA



Sagarbakoitz inguruan kokatuko da araztegia.

## 2021ean araztegia eraikitzeko 470.000 euro inbertituko ditu Nilsak Aranon

200 biztanletik beherako herri guztietan araztegiak jartzeko sozietate publiko honek daukan planaren barruko proiektua da.

### ARANO OBRAK

Aranoko 116 herritarrek araztegia izango dute 2021ean eta Sagarbakoitz inguruan kokatuko da. Proiektuaren arabera, hustubide berri bat jarriko da, 420 metrokoa, Beheko Herriko herri-gunetik instalaziora, eta, beste hustubide bat, 120 metrokoa, araztegitik Lorentxoren Bordako biderra; aurreko fase batean berritutako hustubidearekin elkartuko da puntu horretan.

Horrela azaldu du Nilsa sozietate publikoak, Nafarroako Gobernuaren Lurraldearen Kohesio Departamentura atxikita dagoenak. Lanen aurrekontua 470.000 eurokoa da, eta nafar guztiak uraren ordainagiriaren bidez or-

daintzen duten saneamendu-kanonaren bidez finantzatu da, 200 biztanletik beherako herrietan araztegiak jartzeko planaren barruan.

### Txikia, baina konplexua

Aranoko herrigunetik bi nukleo bereizi ditu eta malda haundiko hegal batean daude: Beheko Herri, azpikoa eta txikiena, eta Goiko Herri, goikoa eta haundiena. Orokorrean, orografia konplexuko eremua da; malda haundiko hegalek eta bailara mehar (Urumea ibaia, Latxeko erreka) eta oso estuek proiektu osoa baldintzatu dute. Gainera, eremura iristea zaila da, eta, beraz, tamaina honetako herrietako urak arazteko, saneamendu-sistema sendoa behar da, mantentze-

-lan gutxikoa eta energia elektrikorik gabe funtzionatzeko aukera izango duena. Horregatik, «txikia izan arren, proiektua konplexua da» Nilsaren esanetan.

Horregatik, lehenengo mailako Imhoff (iragazki) bat eta balantzin-elementu baten bidez kargutako iragazki bakteriano bat aukeratu dira, eta bigarren mailako Imhoff iragazki bat. Guztiak 675 metro karratuko azalera hartuko du, lehenago aipatuta hustubideek hartuko dutenaz gain.

Aurreikusitakoaren arabera, 0,28 litro segundoko emaria tratatuko du (24 metro kubiko egunean); gehienez, 1,89 litro segundoko (168m3 egunean). Ekaitzak edo euri-jasak izaten direnean, gorenko emaria 0,67 litro segundoko izatea espero da (58m3 egunean), beraz, «ia ezinezkoa da gainezkatzeak gertatzea».

Obra 2021ean hasi, eta bost hilabetez luzatuko dira. **K**

## Liburutegia irekita dago gaurtik, maileguak egin edota ikasteko

Hartu nahi den liburua aldeztu katalogoan bilatu beharko da, eta hitzordua hartu. Ikasteko gela erabiltzeko ere, hitzordua eskatu behar da.

### ASTIGARRAGA UDAL LIBURUTEGIA

Ateak irekiko ditu gaur Udala Liburutegiak, «Eusko Jaurlearitzak ezarritako protokoloa jarraituta»; besteak beste, pertsonen arteko bi metroko distantziak mantentzea, maskarak erabiltzea, sartzean eskuak garbitzea eta bana-bana sartzea, 14 urtetik beherakoak edo menpekotasunen bat dutenak direnak izan ezik.

Bi zerbitzu emango ditu liburutegiak oraingoz: liburuak

maileguan hartzea, eta ikasteko gunea erabiltzea.

### Goiz eta arratsaldean, irekita

Liburutegira joan aurretik maileguan hartu nahi den liburua katalogoan bilatzeko eskatu da, eta ondoren, hitzordua hartzeko, 943 33 11 92 telefonoan edo [infoliburutegia@astigarraga.eus](mailto:infoliburutegia@astigarraga.eus) posta elektronikokoan. Liburua prest izango da mostradorean. Bazkide txartel bakoitzarekin lau dokumentu hartu ahal izango dira; liburu,

CD edo DVDak. Materiala bueltatzeko, liburutegiko postontzia eta eskura jarriko diren kaxak erabili beharko dira, eta 15 egunez gordetako kutsatzea saihesteko. Mailegurako ordutegia 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etarako izango da.

Bertara joan badaiteke ere, eLiburutegia webgunea erabiltzeko aholkatu da, liburuak eta filmak online eskuratzeko. Bertaratutako dutenei, berri, etxeko zerbitzua eskainiko zaie.

Ikasteko gelari dagokionez, 17 urtetik gorakoek erabili ahal izango dute, 09:00etatik 13:30etara eta 15:00etatik 19:30etara, uztailearen 7ra arte, eta hitzordua eskatuta. **K**

## «Jaso baino gehiago eman», atzerritarrek

Amherrek aurre egin dio etorkinek eragindako gastuaren zurrumurruari, eta gehitu du «gu ere herri migraria» izan garela.

### HERNANI AMHER

Orain gutxi Euskal Behatokiaren Ikerketak egin duen Ikuspegi azterketak emandako datuei erreparatuta, Amherrek azaldu nahi izan du «jatorri atzerritarra dutenek jaso baino gehiago ematen» dutela. «Oso zabaldua daude etorkinek gastu handia eragiten dutela, eta horrelako beste hainbat zurrumurru. 2018an %2,06ko ekarpena egin zioten Euskal BPGari. Egiten duten ekarpena

(zergak, gastuak, kontsumoa) 1.525 milioi eurokoa da. Gastuak (etxebizitza, zerbitzu sozialak, osasungintza, hezkuntza), 715 milioi eurokoak. Kenketa eginda, ekarpen garbia 810 milioiokoa da».

Hori guztia adierazteko kartelak jarri ditu elkarteak, herrian. Dena den, «Amher elkarteak ez du balorazio ekonomiko hutsean geratu nahi», eta bestelako aberastasunak azpimarratu nahi izan ditu, inmigrazioari lotuta. «Migrazioa giza-eskubide bat da, oportunitate demografikoa egiten dio zahartzen ari den Euskal Herriari, aberastasun kulturala da, eta familia askorentzat, beren bizitza proiektua gauzatzeko aukera. Gainera, ez dugu ahaztu behar gu ere herri migraria izan garela eta izaten jarraitzen dugula». **K**

## Kultur elkarteekin bilera, diru-laguntzez

### HERNANI KULTURA

Asteazkenerako bilera deitu du Kultura Sailak, 2020ko kultur programa eta jardueretarako diru-laguntzen egoeraren berri emateko. Biterin egingo da, 19:00etan hasita, eta kultur elkarteekin egin zaie deia bertaratzeko. Baina parte-hartzea konfirmatu behar da, [paulo-j@hernani.eus](mailto:paulo-j@hernani.eus) helbide elektronikora idatzita, eta maskarilla eraman beharko da.

## Ekaineko programa martxan, bihartik

### HERNANI GAZTELEKUA

Pixkanaka, aurrez aurreko zerbitzua berreskuratuko du Gaztelekuak ere. Aste honetan, asteartearrekin, bihar, emango diote hasiera ekaineko egitarauari. Bihar Instagram bidez ariko dira oraindik, 17:00etatik 20:00etara. Asmoa izango da gazteek udarari begira dauzkaten asmoen berri jakitea, eta elkarrekin uztaileko egitaraua antolatzeke proposamenak biltzea. Asteazkenean, bestalde, Gaztelekuo terrazan elkartzeko aukera izango da, baina bertaratu daitezkeen kopurua mugatuta egongo da. Ostegunean ere, terrazan elkartu eta ping-pong aritzeko aukera izango da, eta ostiralean ere bai, Ingurugiroaren Nazioarteko Egunaren harira, murala egiteko. Orokorrean Gazteleku itxita egongo da, eta bertaratu nahi dutenek eskaera egin beharko dute Instagram bidez.

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzeko duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

VIII. URTEURRENA

**Iraitz Martinez Gamino**

*Egunero hitzordu bat daukagu zurekin  
ametsen batean,  
edozein oroitzenapenetan...  
Zurekin topatzen gara beti  
nahiz eta zu ez egon.  
Maite zaitugu.*

**BEGA ETA ION**

Hernanin, 2020ko ekainaren 1ean

### IRAGARKI MERKEAK

**Garaje itxi bat alokatzen dut Karmelo Labakan.** 95 €. Deitu: **687 841 817**  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**